

# prekarietatearen aurrean **emakumeok** eredu berri bat

reformas:  
más precariedad  
y pobreza

## **martxoak 8**

## **2010**

Aurtengo Martxoaren 8an euskal gehiengo sindikalak bat egin du emakumeentzako bizi eta lan-baldintza duinak eskatzeko eta PREKARIETATEA salatzen, horretara kondentzen baikaitu sistema kapitalista heteropatriarkal honek.

Berriro salatu behar dugu krisiak gogor astintzen gaituela emakumeok, baita geure laneko eta banako errealitatea ere, batik bat sektore feminizatu eta ezkutuetan, hala nola zerbitzuen, arretaren eta zaintzaren sektoreak.

Krisiaren aurka proposatzen ari diren neurriak ere salatu behar ditugu, izan ere emakume eta gizonezkoen desberdintasuna areagotzen baitute, prekarietatearen errealitate asko saihesten dituzte eta emakumeen bizi eta lan-baldintzen kalterako izan ohi dira; aintzat hartzen duten lan merkatuaren oinarria lanaren banaketa sexuala da.

Inbertsio publikoa krisian dauden sektore ekonomikoetara bideratuta (banketxeak, autogintza, eraikuntza...) bestelako inbertsio mota bat baztertzeko da, jendartearen eta batez ere emakumeen onerako litzatekeena. Azpiegitura sozialean inbertitzeaz ari gara: hezkuntza, osasuna, zaintza eta gizarte-babesa... Emakumeok leuntzen ditugu, lehen eta orain, krisien eraginak, lan erreproduktiboa eta zaintzak gure gain izan ohi baitira. Honek ez dauka ordainsaririk eta onarpen sozialik, baina ezinbestekoa da bizitzak aurrera egin dezan.

Krisia denean eta ez denean, emakumeok lan-merkatu guztiz prekarizatu batetan sartzen gara; are eskasagoa da, betiere, guretzat. Lan-merkatu hau gero eta desarautuago dago, eta bizitzaren beste esparruen gisan, diskriminazioa eta desberdintasuna iraunarazten du.

Salatu egin nahi ditugu ere duela gutxi plazaratutako erreforma asmoak: laborala eta pentsioena; doikuntza estrukturaleko errezeta hauek elkarrizketa sozial izendatu dutenaren mahai inguruan ari dira taxutzen. Erabaki konkreturik oraindik hartu ez den arren, argi dago bere fruitua eskubide laboral eta sozialetan atzerakada nabarmena izango dela, langile-klasearentzat oro har eta emakumeontzat, bereziki: pentsio murriztuak, lanaldi partzialeko kontratuak sustatzea, malgutasuna, lan-bizitza luzatzea, etab. Joera honen ondorioz emakumeok berriro subsidiario eta menpeko bihurtzen gaituzte, benetako berdintasunera hurbildu ordez.

Azkenik, ostera ere gure eskubideak errespetatu daitezela eskatu behar dugu, bai herritar, bai langile garen aldetik. Eskubideok aintzat hartuta, bizi-baldintza duinak bermatuko lirateke: lanerako eskubidea, baldintza justuekin eta berdintasunaz; kalitateko zerbitzu publiko osoak izateko eskubidea (bizitzeko funtsezko beharrianak asetuko dituztenak: etxebizitza, zaintza, osasuna, hezkuntza, elikatzeko subiranía eta bortizkeria sexistarik gabe bizitzeko eskubidea).

Gaur beldurra eta krisiaren aitzakia erabiltzen dira borrokatutako lorpen eta berme sozial ugari zalantzan jarri eta atzera egiteko; horregatik, beharrezkoa da emakumeok esparru guztietan kolektiboki antolatu eta eratzeko, baita esparru sindikalean ere. Horixe da aldaketa estrukturalen subjektu izateko modu bakarra, eskubide eta aukera berdintasunerantz urratsak egiteko aukera emango duten aldaketak.

Euskal gehiengo sindikalak dei egiten dizu Martxoaren 8rako antolatu diren jarduerak eta ekintzetan parte har dezazun. Horien artean nabarmentzekoa da Emakumeen Mundu Martxa.

Bost urte geroago, Emakumeen Mundu Martxa berriro izango da Euskal Herrian. Martxoaren 8tik 13ra bitartean furgoneta bat herriz herri ibiliko da, Iruñean abiatuta; bertan bukatuko du bere ibilbidea, eta mobilizazio nazional bat izango da orduan. 2010ko martxa honetan aldarrikapen nagusiak lau ardatzetan bilduko dira: emakumeen aurkako bortizkeria; eskubide sexual eta erreproduktiboak; prekarietatea, eta elikatzeko subiranía.

Halaber, deialdi bateratua egiten dizuegu martxoaren 8a ospatzeko izango diren manifestazioetan parte har dezazuen.

## **GORA EMAKUMEON BORROKA!**

# prekarietatearen aurrean **emakumeok** eredu berri bat

reformas:  
más precariedad  
y pobreza

## **martxoak 8**

Este 8 de marzo, la mayoría sindical vasca hacemos una apuesta conjunta para exigir unas condiciones de vida y de trabajo dignas para las mujeres, y para denunciar la **PRECARIEDAD** a la que nos condena este sistema capitalista heteropatriarcal.

Queremos reiterar el azote de la crisis que impacta de manera cruda sobre las mujeres y sobre sus realidades laborales y personales, especialmente en sectores feminizados e invisibles como el sector servicios, cuidado y atención.

De la misma forma, denunciamos las medidas anticrisis que se están proponiendo ya que contribuyen a agudizar las desigualdades entre mujeres y hombres, obvian muchas de las realidades de precariedad y tienden al deterioro de las condiciones de vida y de trabajo de las mujeres ya que siguen estando dirigidas a un mercado laboral basado en la división sexual del trabajo.

Así, al destinar la inversión pública a sectores económicos en crisis (banca, automoción, construcción...) no se tiene en cuenta otro tipo de inversión que beneficiaría más a la sociedad y sobre todo a las mujeres. Hablamos de la inversión en infraestructura social como la educación, salud, cuidado y protección social, ya que somos las mujeres las que seguimos amortiguando los efectos de ésta y de las anteriores crisis al asumir mayoritariamente todo el trabajo reproductivo y de cuidado no remunerado, ni valorado socialmente, pero totalmente necesario para el sostenimiento de la vida.

Con crisis o sin crisis las mujeres nos incorporamos a un mercado laboral totalmente precarizado para todos y todas, pero sobre todo para nosotras. Un mercado laboral que tiende a desregularizarse cada vez más y que como en el resto de las esferas de la vida, perpetúa la discriminación y la desigualdad.

Queremos denunciar, también, la reciente propuesta de reforma laboral y de pensiones, recetas de ajuste estructural que se están articulando alrededor de la mesa del denominado diálogo social. Aunque todavía no se han aprobado medidas concretas, está claro que el resultado va a suponer un claro retroceso en los derechos laborales y sociales para la clase trabajadora en general y para las mujeres, en particular. Por ejemplo, el recorte de las pensiones, el fomento de los contratos a tiempo parcial, la flexibilidad, el alargamiento de la vida laboral, etc. Planteamientos que vuelven a colocar a las mujeres en una posición subsidiaria y dependiente en lugar de avanzar hacia una igualdad real y efectiva.

Por último, tenemos que volver a reclamar el cumplimiento de nuestros derechos como ciudadanas y trabajadoras, derechos que garanticen unas condiciones de vida dignas como: el derecho al trabajo en condiciones justas y equitativas, el derecho a unos servicios públicos de calidad e integrales (que satisfagan las necesidades básicas de vida como la vivienda, el cuidado, la salud, la educación, la soberanía alimentaria, y el derecho a una vida libre de violencia sexista).

## **2010**

En épocas como la actual, en donde el miedo y la excusa de la crisis son utilizadas para poner en cuestión y retroceder en muchas de las conquistas y garantías sociales luchadas y logradas hasta el momento, es necesario que las mujeres nos organicemos y nos articulemos colectivamente en todos los espacios, también en el espacio sindical. Solamente así, seremos sujeto de cambios estructurales que posibiliten dar pasos efectivos en la igualdad de derechos y oportunidades.

Desde la mayoría sindical vasca hacemos un llamamiento para participar en las distintas actividades y acciones planteadas para este 8 de marzo. Entre ellas destacamos la Marcha Mundial de Mujeres.

Después de cinco años, la Marcha Mundial de Mujeres llega a Euskal Herria. Una furgoneta recorrerá distintos pueblos y ciudades del 8 al 13 de marzo, empezando y acabando en Iruñea con una movilización nacional. En la cita de este año 2010, las reivindicaciones centrales girarán alrededor de cuatro ejes temáticos: violencia contra las mujeres, derechos sexuales y reproductivos, precariedad y soberanía alimentaria.

Asimismo, hacemos un llamamiento conjunto y os animamos a participar en las distintas manifestaciones organizadas para celebrar este 8 de marzo.

## **GORA EMAKUMEON BORROKA!**